

# Nazien eta terroristen moralaz

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA ETA IDAZLEA]

Larria da demokrata guztiek sentitzen duten biolentzia publikoki gaitzetsi beharra. Hori fundamentalismotzat daukagunok ere, ezin konformatu gara, mendebaleko tradizioarekin biolentzia moraliki kondenatzerik ez omen dagoelakoaz. Praktikatzan dutenek berek ere, ez dute praktikatzan, kondenatu ezin daitezkeelako.

Benetan, moralaren kontu honekin oso gaizki aurkitzen gara, batez ere azkenean nahi duguna, zorrotz epaitzea baldin bada eta kondena moduren batera iritsi (hau da, «arrazoia guk edukitzeraz»), berdin da biolentzia kondenatuz ala kondentzaileak kondenatuz. «Kondena antzua da», esaten zidan Joxe Marik. Okerrago: antzua, kondenaren bilaketa bera da, kondenaren izpiritua.

Naziek ez al dago gaitzesterik orduan? Apenas egongo da mendebaleko historian beste kasu bat, enpeinu handiagoa egon denik haren inmoralkeria absolutua *demonstratzeko* margo guztieta konanisten aldetik (demokratak, komunistak, katoliko edo protestanteak), nazismoa eta bere basakeriak baino, Holokaustoa bereziki. Espero dut, inork ez dugula zalantzarik egiten gaur, inmorala izan zela. Baina, nola etorri da, hura inmorala izan zela ziur egotea gu gaur, eta hura egin zutenak ziur egotea, moraliki ondo ari zirela? Zeren eta hori ere, azkeneko hori ere, halaxe izan baitzen, itxura duenez. (Berdin Inkisizioan, etc.). Eta beharbada inon ez ditugu hobeto ikusten gizon-txoaren mugak moral absolutu baten prententsioetan.

Alemanian asko ikertu da eta eztabaidatu da arazo hau alde posible guztietatik. 60ko lehen urteetan debate handi bat egon zen historiarikaren artean, «historiaren jarraitasunaz» edo ale-

manen «erru» historiko posibleaz; alegia, modu sinplean esateko, nazismoa historia alemanaren emaitza *naturala* izan ote zen, Prusiatik hasita. 80ko urteetan J. Habermasek, E. Nolte eta faxismoaren beste historialari ezagun batzuk kritikatu, beste polemika handi bat piztu zuen, *Historikerstreit* deitzen dutena, krimen nazien balioespen historikoaz. 1996/97 urteetan, D. J. Goldhagen historialari judu amerikarrak probokatu du kontrobertsia, *Die Goldhagen-Kontroverse*, historialari handienak berriro asaldarazit, Holokaustoren kausa nagusia autoreen ideologia izan ote zen ala ez, ala egon ote ziren beste-lako arrazoi politiko, ekonomiko edo estratejiko oinarritukoak.

Ez nuke asmatuko emaitza diferentek laburbiltzen. Gauza batek dirudi segurua, gure arloari begira: Kontzentrazio Zelaia-tako begirari naziek

personalki ez ziren, propaganda filmek sinetsarazi nahi izaten diguten infernuko ministro moralak. Ch. R. Brownning esanean, kriminal haiek jende guztiz arrunta ziren (bere liburuaren titulua da hori), gehienbat indiferentea politikoki, batere ez fanatikoa. Browning, historialari iparramerikarra, juduak fusilatzen zituzten batailoen ikerketa indibidualizatzen da espezialista. Berlingo Unibertsitate Teknikoko R. Rürup-en arabera, Holokaustoko krimenen «egileen parte handi batek, egiten zutena ondo zegoela, uste zuen... Kontzientzia onarekin asasinatu zuten». R. Rürup ez da susmagarria, Topographie des Terrors Fundazio-ko Lehendakaria da. Harvardeko D. J. Goldhagenek berak hau dio: «Holokaustoren autore materialak juduak asasinatzera bultzatu zituen, oroz gainetik sarraskia zuzena eta beharrezkoa zelako konbentzimendua izan

zen». Eta beste leku batean: «Ezekutatuzaileetarik asko aleman arrunt eta korrienteak ziren edozein aldetatik. Haie-tarik asko ez ziren naziak ere». H. Mommsen historialari txit ospetsuak, juduen esterminioa esplikatzen, autoren tankera moralari-edo baino bestelako faktoreei gehiago begiratu behar zaiela, uste du; eta, moral indibidualaren mailan, paradoxala ematen badu ere, batzuen piztikeria baino arazoari inportanteagoa, gehien-gehien zintzo-

men ziren zientziak edozer gauza demostratzen du. Hemen ere egin zen zientzia telegidatzeko saio hori, Eusko Jaurilaritzak oparo ordaindu zuten *Terrorismoan aditu* talde alferrikako batekin. Egun haietan Joseba Zulaika antropologoa haserre ikusi genuela, gomutatzen naiz. Ez dakit zergatik, zientziak hemen ez zuten funtzionatu. Terroristak arras jende normala eta beste denok bezain morala zirela, atera bide zitzairen... (Eta harritu egin omen ziren zientifikoa-ki!).

Historia hola moduzko istorioz beteta dago. Batak beti nahi izaten du, *Bestea* inmorala dela demostratu. Turkoia inoiz ez da morala. Protestantea ezin da izan morala. (Baina hain aspaldira joan gabe: frantsesak ez dakit zer dira, ingelesak beste hainbeste). *Bestea* egotearen definizioan dago, gu ez bezalako izatea. Baina gu ez bezalakoarekin, diferen-

tea eta aberasgarria ulertu ordez, gure ukazioa ulertzen du gizarte fundamentalistak. Beraz, gaiztoa eta deabrua.

Izan, baina, «Besteen» eta gure artean diferentzia sekula ez da, haiek ez direla gu bezala razionalak edo moralak. Haiek ere pertsonak dira. Beraz, moralak dira. (Gizaki ez razionalik bezain gutxi dago gizaki ez moralik). Bakarrik, guk ez daukagu zergatik eduki haien morala. Eta haiek ez, zergatik eduki gurea.

Naziek, egiaz moral zindo jatorrekoak berak zirela, pentsatzen omen zuten, eta harro-harro zeuden. Bestek —juduak, komunistak, demokratak, jesuitak— moral gabeko homosexual eta jendemasa ustela ziren. Judu inmorala eta moral handiko ariar garbia, zein ote da zein gaur?... Anartean lubakiak lautu eta fronteak lainotu egin dira, eta gure barruetan agian denok denetik gara pixka bat.

“

*H. Mommsen historialariak, juduen esterminioa esplikatzen, autoreen tankera moralari baino bestelako faktoreei begiratzen die*

“

*Naziek, egiaz moral zindo jatorrekoak berak zirela, pentsatzen omen zuten. Judu inmorala eta moral handiko ariar garbia, zein ote da zein gaur?...*

## ...hemeroteka

### EL MUNDO

#### Nahasketa

[ANTONIO GALA]

Arzalluz jauna edo aita intelektualaiki jarraitzea, hanka-bilatzaile bati lerro zuzen bat eskatzea da. Lehengo jesuita bat, errekamara, atzera egite eta murrizketa mentalaz beterikoa. Gero eta gaizkiago

antolatuta duen burutik igarotzen zaion lehen gauza esaten du, komeni zaionaren arabera. Hala ere, ez daki zer komeni zaion ere. EAJ gaixoa. Jauna eta aitaren arteko bere zalantza argituta dago; ez da bietako bat ere ez. Euskal Herriarentzako dagoen pertsonarik txarrenetakoa da, berak babesten dituen hiltzaileek bakarrik gairiditzen dute. Ma-

rraga hori aurrean ez balu ulerkorragoa litzateke Euskal Herria. Marraga itsu eta gorra, baina ez mutua.

### EL PAIS

#### Azterapena Ulsterren

[EDITORIALA]

Instituzio autonomikoak desagertzea eta Lon-

dresko kudeaketa zentrala berriz ezartzea urrats arriskutsua da. Gobernu britainiarrek bere sinesgarritasuna bermatzen du horrela, 10 eguneko negoziazioen ostean, eta, agian, David Trimble Ipar Irlandako ministro protestanteak kargua uztea saihestu du. Baina Londresek hartu estrategiak azken erabakia pistoleroen esku, geratzea bultzatu du,

kasu honetan IRAren esku. Atzo gertatutakoa atzerapausoa da guztizentzat, IRAK ez duelako keinu sinbolikorik ere erakutsi armak emateko, eta Trimbleren alderdiak armak ematea jarri duelako erakunde berrian jarraitzeko baldintza nagusi bezala.

Erakunde berriak guztiak behartzen zituen elkarbizitza eta elkar laguntzera,

bai unionista sutsuenak bai Sin Feinn bera. Eta erakunde hauen etetea luzatzen bada, prozesua usteldu egin daiteke eta berriro ere indarkeria itzul daiteke. Bateratasunaren aldeko jarraitzaile sutsuentzat tentazio gairidiezina izan da beti. Armak emateko akordio bat laster ez bada lortzen, zailagoa izango da berriro ere hastea.